



PRENTSARAKO OHARRA

13/12/13

Bizkaiko Batzar Nagusiek titulartasun publiko-pribaduko higiezin historikoak barriztetako laguntzak sortzea onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordeak, titulartasun misto publiko-pribaduko higiezin historikoak barriztetako laguntzak sortzea onetsi dau gaur. Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak proponidu dauen ekimena ondo hartu dabe talde guztiek, eta aho batez onetsi da.

Arauz besteko proposamenaren helburua, titulartasuna norbanakoena eta erakunde publikoena daukien interes historikoko eraikinek planteetan daben arazoari erantzutea da. Hori gertatzen da, adibidez, Bermeon dagon Zarragoitxiko Gazteluagaz. Bertako aztarnak jaubetza pribaduen eta udal lurren artean banatzen dira.

ONDAREAREN GAINEKO 2017KO JARDUNALDI EUROPARREN BALANTZEA

Arturo Ignacio Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Foru Diputatuaren agerraldia eskatu dau, joan dan urrian egin ziran Ondarearen gaineko 2017ko Jardunaldi Europarren balantzea egin daian. Diputatu andreak arrakastea eta jendearen leialtasuna azpimarratu ditu, Bizkaiko 78 udalerritan egin diran mota guztietako jardueretara joan dira eta. Halanda be, eta balantzea positiboa izan dan arren, Lorea Bilbaok “lekuak zabaltzea”, “medioetan oihartzun handiagoa lortzea” eta “jende gazteagoa erakartea” beharrezkoa dala azpimarratu dau. Talde guztiak bat etorri dira helburu horreekaz eta, holan, Talde Mistoak eta EH Bildu taldeak jardunaldi horreek denporan gehiago luzatzeko aukerea proponidu dabe. Beste alde batetik, Diputatuak adierazo dauenez, datorren urtean programak 100.000 euroko partidea izango dau –aurton baino %75 gehiago–, Ondarearen Urte Europarraren ospakizunagaz bat etorrira.

URRIAN GUGGENHEIM MUSEORA JOATEKO BIALDU ZIRAN GONBIDAPENEN BALANTZEA

Beste alde batetik, Elsa Pamparacuatro Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, Euskera eta Kultura Foru Diputatuaren agerraldia eskatu dau, museoaren XX. urteurrena zala eta Guggenheim Museoa bisitetako bialdu ziran dobako gonbidapenen balantzea egiteko. Podemos Bizkaia taldeak Diputatuari adierazo deutsoenez, pozik dago joandako jende kopuruari jagokonez lortu dan arrakastarengaitik, baina, aldi berean, jende larregi pilatzeagaitik eta bisiten antolakuntza eskasarengaitik jaso dituan kexa ugarien barri be emon dau. Talde Mistoak eta EH Bildu taldeak adierazo dabenez, holango ekimenak denpora tarte luzeagoan egin daitezke, jende pilaketeagaz erlazonautako arazoak saihesteko. Lorea Bilbaoren eretxiz, oso arrakastatsua izan da gonbidapenak 113.966 pertsonak erabili izana, “baina, kopuru jakin batetik aparte, bizkaitar guztiei joateko aukerea eskini jakela balorau behar da”. Eta, edozelan be, adierazo dauenez, ez da inoiz gainditu baimendutako gehieneko jende kopurua, eta bertan ikusgai dagozan artelanek ez dabe ezelango kalterik jasan.

HILERRIETAKO ELEMENTU MUGATZAILAEN BERRESKURATZE ETA MANTENTZE LANAK

Arturo Ignacio Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak eskaria egin deutso batzordeari, Bizkaiko hilerrietan dagozan eta balio artistikoa eta kulturala daukien elementu mugatzaileen

berreskuratze eta mantentze lanak kudeetako ekimena bozkatu daiten: burdin hesiak, hormak, ateak, etab. Batzordeko gainerako taldeek hori udalen eskumenetan sartzen dala adierazo dabe, baina Talde Popularra gai horren gaineko azterlana egitearen alde agertu da. Proposamena ez da onartu, EH Bilduk kontrako botoa emon dauelako, Podemos Bizkaia, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeak abstenidu egin diralako eta aldeko botoa emon daben bakarrak Talde Mistoak eta Talde Popularra izan diralako.

BILBAO BIZKAIA MUSEOAK ERAKUNDEAREN KONTRATAZINO PROZESUA

Batzar Nagusietako EH Bildu taldeak, Bilbao Bizkaia Museoak erakundean komunikazino teknikari lanposturako kontratazino prozesua baliobakotzeko egin dauen eskaria bozkatu da. Erakunde horren Administrazio Kontsejuan Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hartzen dabe parte. Ekimenaren helburua, sustatzaileek adierazo dabenez, “entxufismo” egoerak saihestea eta kontratazino prozesuan “publizitatea, lehia, gardentasuna eta bazterketa eza” bermatzea zan. Batzarretako Talde Mistoak, Talde Popularrak, Euskal Sozialistek eta Euzko Abertzaleek euren desadostasuna erakutsi dabe, egindako akusazinarako “ezelango frogarik ez dagolako”. Euzko Abertzaleak taldetik azaldu danez, aukeraketa prozesuak eskatzen diran erespide guztiak bete ditu. Azkenean, proposamena ez da onartu, aldeko 5 boto –EH Bildu eta Podemos Bizkaia–, eta kontrako 11, gainerako talde guztiak, izan ditualako.

BIKEE PROIEKTUA

Batzordea, Euskera eta Kultura Foru Diputatuak berak eskatuta, BIKEE proiektuaren (Bizkaian Kirola Ere Euskaraz) barri emoteko egin dauen agerraldiagaz osatu da. Ekimen horretan, Foru Aldundiak euskerea gehiago erabilteko gonbidapena egiten deutse kirol federazioei. Lorea Bilbaok adierazo dauenez, lurraldean dagozan 45 federazioetatik 20k aldeko jarrera erakutsi dabe eta, horreetako bakotxean euskerak beteten dauen presentziaren gaineko hasierako diagnostikoaren ostean, etorkizunean programak pausuak emoten jarraituko dau. Horrez gain bere konfiantzea erakutsi dau, orain arte inplikau diran 20 federazioek gainerako federazioetan izan daikien “efektu bultzatzailea” dala eta.

NOTA DE PRENSA

13/12/17

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban la creación de ayudas para rehabilitar inmuebles históricos de titularidad público-privada

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy la creación de ayudas para la rehabilitación de inmuebles históricos de titularidad mixta público-privada. La iniciativa, propuesta por el apoderado del Grupo Mixto Arturo Aldecoa, ha sido bien acogida por todos los grupos y ha sido aceptada por unanimidad.

La proposición no de norma pretende dar respuesta a la problemática planteada por edificios de interés histórico cuya titularidad comparten particulares e instituciones públicas. Es el caso, por ejemplo, del Castillo de Zarragoitxi en Bermeo, cuyos restos se reparten entre propiedades privadas y terrenos municipales.

BALANCE DE LAS JORNADAS EUROPEAS DE PATRIMONIO 2017

El apoderado de Grupo Mixto, Arturo Ignacio Aldecoa, ha solicitado la presencia de Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, para realizar un balance de las Jornadas Europeas de Patrimonio 2017, celebradas en octubre pasado. La diputada ha destacado el éxito y la fidelización del público, que ha acudido a una gran variedad de actividades que se han desarrollado en 78 municipios de Bizkaia. No obstante, y a pesar del balance positivo, Lorea Bilbao, ha hecho hincapié en la necesidad de “ampliar los aforos”, de “lograr mayor impacto mediático” y de “atraer al público más joven”. Todos los grupos se han mostrado de acuerdo con estos objetivos, y a este respecto el Grupo Mixto y EH Bildu han propuesto la posibilidad de ampliar en el tiempo estas jornadas. Por otra parte la Diputada ha expresado que el próximo año el programa contará con una partida de 100.000 euros – un 75% mayor que la de este año, coincidiendo con la celebración del Año Europeo del Patrimonio.

BALANCE DE LAS INVITACIONES PARA EL MUSEO GUGGENHEIM EN OCTUBRE

Por otra parte, la juntera del grupo Podemos Bizkaia, Elsa Pamparacuatro, ha solicitado la presencia de la Diputada Foral de Euskera y Cultura para realizar un balance de las invitaciones gratuitas para visitar el Museo Guggenheim con motivo del XX aniversario de la pinacoteca. El grupo Podemos Bizkaia ha trasladado a la Diputada su satisfacción por el éxito de asistencia a la vez que ha puesto en manifiesto las numerosas quejas que recibido respecto a la afluencia masificada y la mala organización de las visitas. Tanto el Grupo Mixto como EH Bildu han sugerido que este tipo de iniciativas podrían realizarse en un periodo de tiempo más largo a fin de evitar problemas de afluencia. Por su parte Lorea Bilbao ha valorado como un gran éxito las 113.966 personas que han utilizado las invitaciones, “pero, más allá de la cifra concreta, hay que valorar el hecho de que todos a todos los vizcaínos se les haya dado la oportunidad de acudir”. Y, en cualquier caso, ha asegurado que en ningún caso se ha sobrepasado el aforo máximo permitido ni las piezas expuestas han sufrido riesgo de deterioro.

RECUPERACIÓN Y MANTENIMIENTO DE ELEMENTOS DELIMITATIVOS EN LOS CEMENTERIOS

El apoderado de Grupo Mixto, Arturo Ignacio Aldecoa, ha solicitado a la comisión que se someta a votación la iniciativa de gestionar la recuperación y el mantenimiento de elementos delimitativos presentes en los cementerios de Bizkaia con valor artístico y cultural: verjas, muros, portones, etc. El resto de los grupos junteros ha señalado que se trata de una tarea de competencia municipal, si bien el Grupo Popular ha mostrado su disposición a realizar un estudio al respecto. La propuesta ha quedado rechazada con el voto en contra de EH Bildu, las abstenciones de Podemos Bizkaia, Socialistas Vasco, y Nacionalistas Vascos, y a favor de Grupo Mixto y Grupo Popular.

PROCESO DE CONTRATACIÓN DE BILBAO BIZKAIA MUSEOAK

El grupo juntero EH Bildu ha llevado a votación la invalidación del proceso de contratación para el puesto de técnico de comunicación en Bilbao Bizkaia Museoak, entidad en cuyo Consejo de Administración participan Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Bilbao. La iniciativa pretendía, según sus promotores, evitar situaciones “de enchufismo” y garantizar la “publicidad, concurrencia, transparencia y no discriminación” en el proceso de contratación. Los grupos junteros Mixto, Popular, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han mostrado su disconformidad ante “la falta de pruebas” respecto a la acusación formulada. Desde el Grupo Nacionalista han explicado que el proceso de selección ha cumplido todos los criterios

exigidos. La propuesta finalmente ha sido rechazada con 5 votos a favor – por parte de EH Bildu y Podemos Bizkaia- y 11 en contra, del resto de grupos junteros.

PROYECTO BIKEE

La Comisión se ha completado con una comparecencia a petición propia de la Diputada Foral de Euskera y Cultura en torno al Proyecto BIKEE (Bizkaian Kirola Ere Euskaraz/En Bizkaia el Deporte también en Euskera). Se trata de una iniciativa por la que la Diputación Foral invita a las federaciones deportivas a un uso más extendido de la lengua vasca. Lorea Bilbao ha informado de que 20 de las 45 federaciones presentes en el territorio han mostrado su disposición favorable y que, tras un diagnóstico inicial de la presencia del idioma en cada una de ellas, el programa seguirá dando pasos en el futuro, y ha mostrado su confianza en el “efecto tractor” que las 20 federaciones implicadas hasta la fecha pueda tener en el resto.

Se ha retirado del orden del día la solicitud de comparecencia del director del Museo de Bellas Artes de Bilbao, Miguel Zugaza, por iniciativa del juntero de Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, autor de la petición.